

Donostia Sustapenak Bretxan egiteke dauden lanak suspertu eta kudeaketa sendotu du

- *Irailaren 5ean Donostia Sustapenak merkatuaren eta merkataritza-zentroaren kudeaketa hasi zuen. Orduetik, behar bezala funtziona dezan, beharrezkoak diren funtsezko zerbitzu guztiak mantendu eta aktibatzeke lanean aritu da.*
- *Datozen astetan, lurpeko parkingak Bretxako eraikinarekin lotzen duen tunela egokitzeko lanetarako, baserriarrentzako markesina jartzeko lanetarako eta Arrandegia eraikinaren azken proiektua idazteko lizitazioak argitaratuko dira.*
- *Aldi berean, Handizkarien Elkartearekin eta Bretxako okupatzaile guztiarekin harremanak finkatu dira, informazioa eskatzeko, eta kontratuak aztertu ondoren, bigarren negoziazio-fase bat abiatuko da, irizpide homogeneoekin.*

Joan den irailaren 5ean hasi zen Donostia Sustapenaren kudeaketa Bretxan, egiteke zeuden konplexuaren birmoldaketa- eta eraldaketa-lanak suspertzeko eta amaitzeko. Espazioak kudeatzen eta okupatzaileen kontratu-baldintzak negoziatzen ere hasi zen. Hilabete eta erdi geroago, fruituak ikusten hasten da.

Ane Oyarbide Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotziak adierazi duenez, "etapa berri bat ireki da, eta Udalak Bretxaren gidaritza hartu du, eta merkataritza-gune hori kudeatzen hasi da, Donostiarentzat ezinbestekoa dena eta duela hilabete eta erdira arte norabiderik gabe zegoena. Donostia Sustapenaren kudeaketan utzita, Udalak ziurtasunak eskain ditzake proiektu hau gauzatzeari eta zerbitzuak emateari buruz, normaltasunez funtzionatzen jarraitu baitute. Izan ere, denbora honetan erabiltzaileek ez dute aldaketarik nabaritu".

Jarduerari eustea

Kudeaketa hastearekin batera, Donostia Sustapenak zentroak funtzionamenduan jarraitu ahal izan duela bermatu du, beharrezkoak diren funtsezko zerbitzuak kontratatuz. Aldi berean, orain arte ematen ari zirenak berrikusi eta aztertu dira, eta gutxi barru zerbitzu horien prestazioa hobetzeko proposamen bat aurkezteko da.

Gauzak horrela, gaur egun, 15 hornitzailearekin egiten da lan, zentroak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak bermatzen dituztenak: garbiketa, irekiera eta itxiera, ekipamenduen mantenua (igogailuak, eskailerak, klima, etab.), norberaren babeserako plana edo sute-plana, alarma-sistemak, hondakin eta izurriteen kudeaketa, edukiontzi higienikoak..., beste zenbait kontratu abian izateaz gain.

Joan den irailaren 5az geroztik, Donostia Sustapenak Bretxako espazioetan sortuz joan diren 60 gorabehera inguru ebatzi ditu; besteak beste, lehendabiziko kudeaketa-egunean eskailera mekanikoan izandako matxura edota hainbat konponketa elektriko.

Egiteke dauden obren egutegia

Oyarbidek nabarmendu duenez, "lan handiko asteen ondoren, lizitaziorako eta obrak egiteko epeak eta prozedurak arindu ahal izan dira, eta, horrela, espazioak eraikinari eman nahi zaizkion erabileretara egokitu ahal izan dira. Bretxak aurrera egin eta obrak amaitu ahal izango ditu, herritar guztiak gozatu ahal izateko".

Alde batetik, lehentasun-ordena bat ezarri da egiteke dauden obrak egiteko, eta egikaritze-egutegi bat ezarri da, Bretxaren eta haren instalazio osagarrien etorkizunaren gaineko ziurtasunak eskaintzen dituen. Egutegi hori honela geratu da:

1. Aparkalekuarekin komunikatzen duen tuneleko obrak

Azken asteetan proiektua idatzi ondoren, laster aterako da lizitaziora Boulevardeko lurpeko aparkalekua Bretxarekin lotzen duen tunela egokitze obra. Esleitzeko epea 4 hilabetekoa da, eta datorren urteko ekainaren amaierarako amaituta egotea aurreikusten da. Obra horren zenbatekoa 560.000 €-koa da.

2. Baserritarrentzako markesina

Datozen asteetan argi berdea emango zaio baserritarrentzako markesinaren obraren lizitazioari. Joan den asteartean Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuenak eta bere proiektua ere idatzita duena. Obra horrek 930.000 €-ko zenbatekoa du, eta obrak egiteko 6 hilabeteko epea, esleitzen direnetik hasita. Aurreikusita dago 2025eko abuzturako amaitzea.

3. Arrandegiko eraikina

Arrandegi eraikinean egiteke dauden egokitzapen- eta birmoldaketa-obrek, lehenik, proiektu berri bat idaztea eskatzen dute. Bere lizitazioa urriaren amaieran onartuko da. Proiektuaren idazketa datorren urteko udaberrirako amaituta egotea aurreikusten da, eta obrak udazkenean hasita eta 2027aren hasieran amaitzea. 8 milioi euro inguruko operazioa izango da. Merkatuko solairua ia urtebete lehenago egongo da prest, 2026ko udaberrirako.

Akordioak handizkari eta okupatzaileekin

Halaber, kudeaketarekin daraman hilabete eta erdi honetan, Donostia Sustapena Handizkarien Elkartearekin eta Bretxako egungo okupatzaileekin harremanetan jarri da, eta dagoeneko egin ditu horiekin hasierako bilkurak. Bilkura horietan beharrezkoa den informazio guztia eskatu da; izan ere, aurreko emakidadunarekin sinatutako kontratuak dagoeneko ez daude indarrean, eta berriak Donostia Sustapenarekin sinatu beharko dira.

Donostia Sustapeneko Administrazio Kontseiluak lehendabiziko bilkura horien ondorioz prestatutako zenbait irizpide homogeneo batzuk onartu ondoren, harremanetarako beste fase bati ekingo zaio, guztiekin adostasunetara iristeko aukera emango duena.

Guztiekin tratu uniformeak izatea ahalbidetzen duten elementu horiek izango dira negoziazioen oinarria, bai Bretxako egungo okupatzaileekin, eta baita etorkizunean proiektuarekin bat egin nahi duten horiekin.